

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bernabe Belategi Lopez de Egin

*Oñati, Gipuzkoa
(1931)*

Aurkibidea



Biografia



Olabarrieta auzoko Tiruena baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen; ama, berriz, arabarra zen, Erentxun herrikoa, baina neskame etorri zen Oñatira, artean neskatila zela. Bernabek 7 urte zituela aita hil zitzaien eta ama aitaren anaiarekin ezkondu zen. Hamar urtera arte ibili zen auzoko eskolan, baina tarteka bakarrik joaten zen, baserriko lanak egin behar izaten zituztelako. 10 anai-arreba ziren. Meza-mutil ere ibilia da mutikotan. Basoan aritu zen lanean denbora batez, baina 35 urterekin ULMA lantegian hasi zen lanean.

Zintak

ONA-077

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-01-30
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

ONA-078

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-01-30
- **Iraupena:** 22 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Tiruena baserrian jaioa

- **Erref:** ONA-077/001
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Bernabek ez daki bere baserriaren "Tiruena" izena nondik datorren. Lehenagoko dokumentuetan "Antuena" bezala agertzen da. 1931ko ekainaren

10ean jaio zen Bernabe Tiruena baserrian. Auzoa asko aldatu da azken urteetan. Etxeak berriztatuta dira eta baita etxe berriak egin ere, baina baserriar gutxi geratzen dela dio Bernabek.

2. Baseritik ULMAra

- **Erref:** ONA-077/002
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:02:08. **Bukatu:** 00:04:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Bernabe gaztea zenean 60 auzotar ziren Olabarrieta auzoan. Gaur baserri batzuetan hiru edo lau etxebizitza daude. Hamar anai-arrebatatik zazpi gelditzen dira gaur. 35 urtera arte baserrian egon zen, gero ULMA n ekin zion lanean. Basolan guztietan aritutakoa da, ikazkintzan izan ezik.</p>

3. Ganaduak eta soroak

- **Erref:** ONA-077/003
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:04:51. **Bukatu:** 00:07:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Auzoan, mendiko baserrietan egiten zuten ikatza kalean saltzeko. Karegintza umetan ezagutu zuen. Behiak bazituzten, baina ardiak bere aitajaunarekin bukatu ziren Tiruena. Soroan garia, artoa, baba, etab. ereiten zuten.

4. Azokan saldutakoekin erosketak egin

- **Erref:** ONA-077/004
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:07:55. **Bukatu:** 00:09:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Labesua astero egiten zuten. Ogia bukatuz gero, aldeko ei eskatzen zieten. Ama zapatuetan joaten zen kalera astoarekin, asterako erosketak egitera eta etxeko gauza batzuk plazako azokan saltzera.

5. Ama Arabatik etorritako neskamea

- **Erref:** ONA-077/005
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:09:51. **Bukatu:** 00:12:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Igandetan goizeko seietako mezara joaten ziren kalera, gero baserriko lanak egin ahal izateko. Bere ama, Arabako Erentxun herrikoa, 12 urterekin neskame etorri zen Olabarrietako Arrazola etxera. Euskara ondo ikasi zuen.

6. Aitaordea auzo-eskolako maisu

- **Erref:** ONA-077/006
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:12:18. **Bukatu:** 00:14:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Sei ume izan eta gero, aita hil egin zen eta aitaren anaia zenarekin ezkondu zen bigarren ezkontza. Aitaordea auzoko maisua ere bazen eta harekin ikasi zuen Bernabek. Aitaordearekin beste lau ume izan zituen amak. Ehun bat ikasle elkartzen ziren auzo-eskolako gela batean, maisu berarekin denak.

7. Auzoko maisuak, baina eskolak erdaraz

- **Erref:** ONA-077/007
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:14:40. **Bukatu:** 00:17:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskola zaharra eliza ondoan zegoen. Bernaberen aitaordeak maisugintzari utzi zionean, Jurgi baserrikoa izan zen maisu berria, hari eta eskola nazionalak hasi ziren arte. Orduan eskola-etxe berria eraiki zuten auzoan. Eskolak erdaraz jaso zituzten. Euskaraz egiten zuenari eratzun bat ematen zioten eta jolas-ordurik gabe geratzen zen eratzuna zuena.

8. Dotrina euskaraz

- **Erref:** ONA-077/008
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:17:14. **Bukatu:** 00:20:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eguraldi txarra egiten zuenean, etxean lan gutxi egoten zen eta eskolara joan ahal izaten zen Bernabe. Hamar urterekin utzi zion eskolari. Neguan, aitak etxean ematen zien eskola. Dotrina euskaraz eta erdaraz irakasten zuten eta bietan ikasi zuen Bernabek, dotrina osoa buruz. Geroago, galarazi egin zuten euskal dotrina. Monagilo lanetan ere ibili zen Bernabe.

9. Monagiloa abadearekin baserrietara

- **Erref:** ONA-077/009
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:22:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Abadeak mezan esandakoei erantzuten zien monagiloak. Elizara joateko gai ez ziren olabarrietarren etxeetara abadea monagiloarekin joaten zen elizkizunetarako. Garai hartan elizkizunak latin hutsez izaten ziren. Elizakoak ematera ere abadearekin joaten zen Bernabe, kanpaia joz, eurak zihoazela ohartarazteko.</p>

10. Pazkoetako derrigorrezko jauna hartzea

- **Erref:** ONA-077/010
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:22:07. **Bukatu:** 00:24:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Pazkoetan jauna hartzea derrigorrezkoa zen. Abadeak etxe bakoitzean zegoen kristau beste txartel uzten zituen, jauna hartzea ziurtatu ahal izateko. Gero, jauna hartzeaz bat, txartel hori erretilu batean utzi behar izaten zuen auzotarrak.</p>

11. Monagilo lanak; mezak latinez

- **Erref:** ONA-077/011
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:24:55. **Bukatu:** 00:27:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Olabarrietako elizan jardun zuen Bernabek monagilo lanetan. Baserrietara joaten zirenean, beti jasotzen zuen diru-sarixoren bat. Arrazolatarraren etxera

igandero joaten ziren etxeko kaperatxoan meza ematera. Meza guztiak latinez ematen ziren. Berak ulertu ez arren, buruz ikasita zituen esan behar zituen guztiak. Abadea kaletik etortzen zen, parrokiatik.

12. Iminakada bat gari abadearentzat urtero

- **Erref:** ONA-077/013
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:28:15. **Bukatu:** 00:31:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Abade batzuk beste batzuk baino eskuzabalagoak ziren monagiloari diru-saria ematerakoan. Batzuek ahaztu ere egiten zuten batzuetan monagiloaren saria. Elizako kanpaiak sakristauak jotzen zituen. Garai batean, urtean iminakada bat gari eman behar izaten zion baserri bakoitzak abadeari.

13. Gerra ostean auzoan errotarik ez

- **Erref:** ONA-077/014
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:31:31. **Bukatu:** 00:34:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Mezan erretilua birritan pasatzen zen, aurrena elizako gastuetarako eta, bigarrenez, abadearentzako. Gariak lan asko ematen zuen: erein, ebagi, jo eta gero errotara eraman behar zen. Olabarrietan errota bat zuten. Gerra ostean itxi egin zuten eta Bernabek Arantzazu, Araotz, Tokillo eta baita Telleriarteko errotetara eraman izan zuen auzoko garia ehotzera.</p>

14. Etxeko ekoizpena entregatzera behartuta

- **Erref:** ONA-077/015
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:34:36. **Bukatu:** 00:37:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Antzuolara ere joaten ziren Oñatitik gariarekin, gauez, errota gobernuaren aginduz itxita zegoelako. Arantzazu eta Araotzeko errotak debekutik libre omen zeuden. Gerra ostean baserri guztiek entregatu behar izaten zuten etxean ekoizten zen alearen zati bat udaletxean, labrantzaren azaleraren arabera kalkulatuta. Bernabek 15-16 urte zuen arte iraun zuen alea eman behar horrek.

15. Taloak bai, baina txorizorik gabe

- **Erref:** ONA-077/016
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:37:05. **Bukatu:** 00:40:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerra ostean kalean gose handia pasatu omen zuen jendeak. Auzoan ere izan omen ziren arazoak gosearekin. Tremesa pusketak alde batetik bakarrik bustitzen zituzten urdaiaren koipean, bestela amona haserretu egiten zen eta. Txerria hazteak asko laguntzen zuen etxean jatekoa izateko. Taloa ia egunero jaten zuten, koipetan bustita edota esnetan zopatuta.

16. Garotara urruti joan behar

- **Erref:** ONA-077/017
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:40:02. **Bukatu:** 00:43:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Etxeko gaztainadirik ez du gogoratzen Bernabek. Tiruenenean ez zen gaztaina asko jaten. Bera gaztea zenean, Olabarrieta inguruan gaur ikusten diren pinudi gehienak zelaia ziren. Orduan basoak gorago zeuden. Garotara urruti joaten ziren, Legazpi aldeko basoetara. Irailetik azarora ia egunero joaten ziren garoa ebakitzera. 40 bat gurdikada behar izaten zituzten urte osorako. Garoa ganaduei azpiak egiteko erabiltzen zuten.

17. Basolanak; Udanako taberna

- **Erref:** ONA-077/018
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:43:30. **Bukatu:** 00:46:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Basolanetara oinez joaten ziren Udana aldeko basoetara, bazkaria eta lanabesak aldean hartuta. Udanako tabernan ikazkin, mandozain eta basomutil asko elkartzen ziren. 20 laguneko basomutil koadriletan lanean arituta dago Bernabe.</p>

18. Basoak landatzen

- **Erref:** ONA-077/019
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:46:03. **Bukatu:** 00:49:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>"Montañeruak" izenarekin ezagutzen zen elkarte bat zegoen garai hartan, baso hektarea asko zituena. Elkarte honek mutil asko alokatzen zituen basolanetarako. Basoak landatzeko garbitu ondoren, landareak sartzen zituzten. Ganaduengandik babesteko itxiturarik ez zen egiten orduan. Satsa urarekin nahastu eta horrekin igurzten zituzten landareak. Alanbre arantzaaduna agertu zen arte basoetan ez zen itxiturarik egiten. Egurrezko hesiak nola egiten zituzten gogoratzen du Bernabek.</p>

19. Xabalo eta Urubilen tabernak

- **Erref:** ONA-077/020
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:49:35. **Bukatu:** 00:52:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Taberna giroa

Laburpena:

<p>Kalera kuadrillan joaten ziren; itzultzerakoan bertsoetan etortzen ziren. Jai egunetan Xabalon tabernara joaten ziren afaltzera; hau itxi zutenean Urubillera, eta hau ere itxi zutenean Etxeberriarenera. Oraindik ere jaiero afaltzen dute Etxeberriarenean, azkenengo 40 urte hauetan egin duten legez.</p>

20. Auzoko jaietan bertsolariak

- **Erref:** ONA-077/021
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:52:40. **Bukatu:** 00:55:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>Bertso-saioetara joatea gustukoa zuen Bernabek. Donostiara joan izan ziren bertsolari omenaldietara. Donostiara joateko, Brinkolaraino autobusez eta handik trenez egiten zuten bidaia. Lazkao Txiki, Agirre eta Garmendia bertsolariak gogoratzen ditu Olabarrietako jaietan kantatzen.</p>

21. Lehengo "'Patroziño" jaiak

- **Erref:** ONA-077/022
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:55:06. **Bukatu:** 00:58:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Auzoko jaiak gaur egun maiatzaren lehenean ospatzen dira, baina lehen "Patroziñoak" ziren. Pazko egunetik 40 egunera ospatzen zituzten orduan jaiak. Lehengo jaietako giroa beste bat zela dio Bernabek. Jaietarako ilusio gehiago izaten zuten lehen. Soinujolearentzat astoak tiratutako ondo apaindutako orga prestatzen zuten. Suziriak jaurti eta orgaren atzetik Artzubi baserriraino joaten ziren. Artzubi beti egon izan zen Olabarrietako auzo-bileretan, baina jada ez dago auzoan.

22. Ohitura zaharrak berpiztu nahian

- **Erref:** ONA-077/023
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:58:18. **Bukatu:** 01:01:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Jaietako orgaren atzetik Udana aldeko baserrietatik itzulia ere egiten zuten. Ugarte baserriko ortuzainen orga erabiltzen zuten jaietan. Orgaren ohitura berpizteko saiakera bat izan zen duela urte gutxi, baina ez zuen emaitza onik izan. Elizpean egiten zuten pilotan Olabarrietan. Bernaberen anaia bat Espainiako txapelduna izan zen pilotan amateurretan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-04-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com